

FILOLOGIA IKASGELAN BARRENA

- **Jakintza adarra:** Arteak eta Giza Zientziak
- **Campusa:** Araba
- **Ikastegi antolatzailea:** Letren Fakultatea
- **Gradua/k:**
Filologia
- **Garapen-lekua (helbidea):** Unibertsitateko Ibilbidea, 5, Vitoria-Gasteiz

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

- Ikasleen harrera eta Filologiako ikasketen aurkezpena
- Bisita gidatua Fakultateko eta Campuseko instalazioetara
- Hizkuntzak ikasteko jarduera praktiko bat egitea

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

1. Filologiako ikasketen eduki orokorra.
2. Filologiako ikasketen irtenbide profesionalak.
3. Bisita gidatua laborategietara eta Arabako Campuseko azpiegiturretara (Liburutegia, ordenagailu-gela, etab.).

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

- Ikasleei harrera egingo zaie Fakultateko areto nagusietako batean eta Filologiako ikasketak aurkeztuko zaizkie (helburuak, ikasleen profila, gradua eskuratzen dutenen profila eta ikasketen egitura) eta EHUn Filologia ikasteko arrazoiak:
 - a) Ikasketa-planak prestatuta daude ikasleak hainbat ikasgaitan prestakuntza osoa jaso dezan.
 - b) Filologiako irakasleen berri ematea, haiek baitira ikasleak espezializa daitezen lan egiten dutenak.
 - c) Baliabide material bikainak (laborategiak, liburutegia, ordenagailu-gela) Fakultatean eta Campusean Ikasketa-planaren helburuak gauzatu ahal izateko.

d) SICUE/SÉNECA hitzarmen bikainak eta bestelako hitzarmenak Europako eta Amerikako unibertsitateekin.

- Bisita gidatua laborategietara (Multimedia-laborategia, Autoikaskuntza-laborategia, Fonetika-laborategia, Interpretazio-laborategia, etab.), eta Arabako Campuseko azpiegiturretara (Liburutegia, ordenagailu-gelak eta abar).
- Hizkuntzen ikasketa nola gauzatzen den ulertzeko jardunaldi praktikoa bat egingo da, hizkuntzak ikasteko klase baten simulazioa bezala gauzatuko da eta ikasleek irakaskuntza mota honetan erabiltzen diren estrategiak eta tresnak ezagutuko dituzte.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-13	Gaztelania	Arratsalde	16:00-18:30	50